

**GOBERNU JUNTAK 2017.04.11n EGINDAKO  
BILKURAKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

UNAI ELKORO OIANGUREN

ARETXABALETA

**BOKALAK**

BEÑARDO KORTABARRIA OLABARRIA  
JOSÉ MIGUEL URIBARREN AZPIAZU  
MARIA UBARRETXENA CID  
JUAN KARLOS GARITANO EZKURRA  
ELENA LETE GARCIA  
LANDER ARREGI INCHAUSTI  
SABINO AZCARATE LETURIA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
ELGETA  
ESKORIATZA

**ETORRI GABEAK**

IBON ARRUPE ALDECOCEA  
OSCAR GARCÍA HORRILLO  
ENEKA ZANKADA REMENTERIA  
MIKEL BIAIN BERRAONDO  
IRATI ETXEBERRIA GABIRIA  
NEREA ZUBÍA BLAZQUEZ

ARRASATE  
ARRASATE  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI  
OÑATI  
OÑATI

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



Mankomunitatearen egoitzako bilera gelan, 2017ko apirilaren 11n, 10:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Unai Elkoro Oianguren jauna, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

## **1.- Aurreko bilkurako akta onartzea**

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2017ko martxoaren 14an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

## **2.- ZERBITZU OROKORRAK**

### **2.1.- Foru Kontratazio Zentrala**

#### **Energia elektriko hornitzeko IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. enpresarekin sinatutako kontratuaren 3. luzapena**

Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko foru diputatuak, 2014ko martxoaren 12ko foru aginduaren bitartez, ebatzi zuen IBERDROLA GENERACIÓN, S.A. enpresarekin burutzea "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez energia elektrikoaren hornidura kontratatze esparru akordioa", hasieran urtebetekoa, baina urtebeteko hiru alditan gehienez luza zitekeena. 2014ko urrian, IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. subrogatu zen esparru akordiotik sortutako eskubide eta betebeharrak guztietan.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu eta formalizatu zuen.

2017ko martxoaren 15eko foru diputatuaren agindu bitartez, Esparru Akordioa beste urte betez luzatzea ebatzi denez, eta Mankomunitateak hornidura honen beharra izaten jarraitzen duenez, dagokion kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebatzea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Beste urtebetez luzatzea Mankomunitate honek energia elektriko hornitzeko IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. enpresarekin duen kontratu eratorria.

## **3.- HONDAKINEN KUDEAKETA**

### **3.1.- Etxean erabilitako olio biltzeko kontratazio espediente**

Kontratazio espediente honen egoeraren berri eman du idazkariak. Gaur argitaratu da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean lizitazio iragarki berria. Maiatzaren 2an bukatuko da proposamenak aurkezteko epea. Onartutako baldintza agirien arabera, kontratu hau aldatu ahal izango da baldin eta bere indarraldian zehar Arrasateko Udalak olio jasotzeko zerbitzu mankomunitatearekin bat egitea erabakitzen badu.

### **3.2.- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratazio espediente**



Mankomunitateak Garbiguneetan eta bere beste Zerbitzu batzuetan bildutako etxeetako hondakin arriskutsuak kudeatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiria onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

### **3.3.- Hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko kontratazio espedientea**

Debagoieneko Mankomunitatearen 8 udalerrietan etxeko hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua emateko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, eta espediente honetako baldintza eta aurreikuspen ekonomikoei buruzko azalpenak entzun ondoren, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiriak onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

Landerrek, Hondakinen Kudeaketa Batzordeko lehendakariak, kontratazio espediente hau prestatzeko teknikariek egindako lana aipatu eta eskertu du.

## **4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA**

### **Enplegua eta Prestakuntza**

#### **4.1.- Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratazio espedientea**

Mankomunitatearen Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoen agiriak onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

#### **4.2.- Sustapen ekonomikorako gobernamentu eredu berri bat garatzeko oinarriak ezartzeko Gipuzkoako Foru Aldundia eta Garapen Agentzien arteko lankidetzaren hitzarmena**

2010ean Gipuzkoako Foru Aldundiak Deustuko Unibertsitatearen "Orkestra" institutuaren laguntza teknikoaz "Gipuzkoa Sarean" programa abian jarri zuen. Programa honen helburua Foru Aldundia eta Eskualdeen arteko harremanak sendotzea eta lankidetzan programa ezberdinak bultzatzea zen. Aurreko legealdian, "Gipuzkoa Sarean" barneko ekimenak eta Foru Aldundiaren eta Eskualdeen arteko ekimenak ugaritu ziren eta dinamika asko indartu zen. Horrela Eskualde Arteko Mahaia (EAM) eta Fazilitadoreen prestakuntza ekitaldiak abian jarri ziren. Legealdi honetan programarekin jarraitu da eta Eskualde Arteko Mahaiaren zenbait bilera egin dira Foru Aldundia eta Eskualdeko Agentzien arteko lankidetzari indartzeko. Besteak beste, deialdien orientazioa adosteaz gain, enpresa txikiei bideratutako ekintzen inguruko azterketa burutu da Orkestra institutua eta Agentziako teknikarien artean.

"Gipuzkoa Sarean" programaren jarraipena ondo baloratzen da, Foru Aldundia eta Eskualdeen arteko harremanak sendotzea eta lankidetzan aritzea ezinbestekoa delako.

Lerro horretan Eskualde Arteko Mahaiaren azken bileretan Sustapen ekonomikorako gobernamentu eredu berri bat garatzeko oinarriak ezartzeko Gipuzkoako Foru Aldundia eta Garapen Agentzien arteko lankidetzari hitzarmen baten gainean lana egin da eta, dagoeneko, testu bat adostu da eta orain eskualde bakoitzak oniritzia eman beharko dio aipatutako hitzarmena sinatzeari.

Hau honela izanik, Gobernu Juntak, Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Gipuzkoako Foru Aldundia eta beste Tokiko Garapen Agentziekin proposatutako lankidetzari hitzarmena sinatzea, ondorengo klausulen arabera:

***“Lehenengoa. Helburua.***

*Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Tokiko Garapen Agentzien arteko hitzarmen honen helburua da sustapen ekonomikorako gobernantza eredu berri bat garatzeko oinarriak ezartzea.*

***Bigarrena. Aldeen arteko lankidetzari.***

*1. Hitzarmen hau sinatzen duten aldeek konpromisoa hartzen dute Lurraldearen garapen ekonomikorako gobernantza eredu berri bat garatzen laguntzeko. Lankidetzari kontzeptua unean uneko borondatea eta errealitatearen bilakaerak aintzakotzat harturik garatu eta egokitu behar da. Eta lankidetzari horretatik ikasitakoak izango dira prozedurak finkatuko dituztenak.*

*Dena dela, Gipuzkoa Sarean azken bi legealdietan eraman den dinamika ontzat jotzen denez hartan sakondu eta hobetzeko (garatu diren hiru guneen eginbeharrak indartuz), errealitate ezberdinetara egokituko da, ikerketa eta ekintza kontzeptuak integratuz eta dagozkion kanpoko adituez baliatuz.*

*2. Lankidetzari lan talde hauen arabera egituratuko da:*

a) *Talde Eragilea, non Diputatu Nagusiaren Alorreko ordezkariak eta Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentuko ordezkariak egongo baitira. Prozesuaren nondik norakoak landu eta prozesua bere osotasunean erraztuko du, gainerako taldeek hausnartu, erabaki eta ekin dezaten.*

b) *Eskualde Arteko Mahaia. Bertan, Foru Aldundiko ordezkariak eta tokiko garapeneko eskualde agentzietako lehendakari eta zuzendariak daude. Berau izango litzateke lurralde politiken inguruko diagnosiak landu, lehentasunak ezarri eta erakundeetan lurralde politikek eskatzen dituzten eraldaketak (gaitasunen garapena eta antolaketa ereduak) lantzeko eremua.*

*Bai alderdi politikoa eta bai teknikoa landuko da. Eskualdeen (garapen agentzietako lehendakarien eta gerenteen) lana bideratuko da lehentasunak ezartzera, diagnosien lanketara eta lurraldeko politikak definitzen parte hartzera, bat etorri maila anitzeko gobernantza ereduarekin, irekia eta elkarlanekoa. Orobat, unean uneko errealitatearen garapenari jarraikiz, aukera zabaltzen da proposatzeko eta eztabaidatzeko ea beharrezkoak diren beste foro tekniko batzuk, ekintza-ikerketak lana aurrera eramateko. Lehendakari eta zuzendariak Foru Aldundiarekin batera lan egingo dute.*

*EAMren operatibotasuna eta arintasuna bermatzeko, batzorde exekutibo politiko-tekniko bat eratuko da. Bertan, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkari bat eta tokiko garapeneko eskualde agentzien ordezkariak izango dira.*

c) *Ekintza-ikerketak prozesuaren fasiladoreen mahaia, Foru Aldundiko ordezkariak eta tokiko garapeneko eskualde agentzietako teknikariak eta zuzendariak osatua. Mahai horretan, EAMen erabakitako lehentasunen inguruan lanketak egin, gaitasunak garatu eta ekintza konkretuak landuko dira, haien jarraipen eta ebaluazioa egingez.*

*Mahai horrek ekintza proposamenak egingo dizkio EAMri, balioetsi edo ez erabaki dezaten. Ekintza konkretuak eskualde bakoitzeko eta GFAko tokian tokiko kultura eta lan moduak errespetatuz garatuko dira, baina ardatz partekatu baten baitan. Modu honetan, norberak bere autonomia galdu gabe, partaideek koordinazio moduak lantzeko espazio bat izango dute, non agentzietako bakoitzak elkarrizketa zuzena izango duen gainerako agentzia eta Foru Aldundiarekin eta, aldi berean, Foru Aldundiak bere politikak garatzerakoan eskualdeetako agentzien lankidetzaz baliatuko den bisio bat ekarriko du, gertutasun handiago bat eta sustapen ekonomikoko lurralde politiketarako irisgarritasun bat bermatuko dituena.*

*3. Bestalde, garrantzitsua izango da komunikazio bide zehatzak ezartzea foru teknikoen eta EAMren artean, Gipuzkoa Sarean-en koordinazio eraginkor bat lortzearren.*

### **Hirugarrena. Legealdiko lan ildoak eta urteko ekintza plana.**

1. Kapital soziala eta balio erantsi handiko proiektuak sortzeko prozesuak luzeak dira, eta eragile eta baliabide askok parte hartu behar dute. Hortaz, hauek eduki behar ditu:

- a) Epe ertain eta luzeko ikuspegi bat.
- b) Tokiko garapenerako eskualde agentziek gidatzen dituzten proiektuetan, eskualdeko autonomia bat proposamenaren kudeaketa eredia ezartzeko orduan, eta baliabideak partekatzea eta eragileak artikulatzea.

Zentzu honetan, legealdiko lan ildoak eta lehentasunak zehaztu beharko dira, eta urteko ekintza plan bat honi jarraikiz:

– Legealdiko lan ildoak eta lehentasunak: legealdi osorako eta urte anitzeko ikuspegia gehitu beharra aintzat hartuta, legealdi hasieran lan ildoak eta lehentasunak zehaztuko dira, lau urteotan garatuko direnak. Legealdi honetan Foru Aldundiak zirriborro bat aurkeztuko dio EAMri 2017ko apirilaren 30aren aurretik, ekainaren 30aren aurretik onartzeko.

– Urteko ekintza plana: urtero, Foru Aldundiak hurrengo urteko aurrekontuen proposamena aurkeztu aurretik, urtean zehar garatutako dinamika eta ekintzak ebaluatuko dira. Gainera, legealdian ezarritako lan ildoak eta lehentasunak aintzat hartuta, hurrengo ekitaldian kooperazioan garatu nahi diren ekimenak garatuko dira, baita dagozkien aurrekontuak ere (urteko ekintza plana). Horretarako, programen zirriborroak aztertuko dira Foru Aldundiak onartu aurretik. Azterketa eta eztabaida dinamika hori uztailetik abendura izango dira urtero.

2. Aurreko bi puntuek diotena Gipuzkoa Sarean-en markoan betetzeko, komunikazio mekanismoak ezarriko dira talde teknikoen eta EAMen artean.

### **Laugarrena. Gipuzkoako Foru Aldundiaren rola.**

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokio:

- a) Lurraldearen ikuspegi orokorra bermatzea
- b) Eskualde arteko kohesioa sustatzea.
- c) Lankidetzaren guneak sustatzea lurraldeko eragileekin eta eragile sozio-ekonomikoekin.
- d) Lurraldeko sustapen ekonomikoa eta gizarte eta lurralde kohesioa sendotzea, gobernantza ireki eta elkarlanekoan oinarrituta, hori inplementatzeko lehentasunak ezartzea, eta beharrezko tresnak diseinatu, garatu, partekatu eta zabaltzea.



- e) *Estrategia partekatuak proposatzea eta praktika onak zabaltzea.*

### **Bosgarrena. Garapen agentzien rola.**

*Udalen lana da, tokiko garapeneko eskualde agentzien bidez:*

- a) *Foru Aldundiak bultzaturiko garapen sozio-ekonomiko politiken diseinurako proposamenetan parte hartzea, inplementazio egokia bermatuz eta eskualdeen beharretara egokituz.*
- b) *Enpresen eraldaketa prozesuak erraztea (batez ere, enpresa txiki eta ertainei), gako den eragile gisa indartzeko.*
- c) *Eskualde bakoitzeko eragileen arteko harremana erraztea.*

*Hori guztia, lurraldearen ikuspegi orokorrarekin lerrokatua egonik eta eskualde garapen agentzien arteko koordinazioa bermatuz, kapital soziala eta Lurralderako balio erantsiko proiektuak sortzea bikainduz.*

### **Seigarrena. Finantzatzeko moduak.**

*Alderdiek hitzarmen honi jarraikiz bere gain hartzen dituzten konpromisoak betetzeko, finantzatzeko modu hauek ezartzen dira:*

*Urteko ekintzako planak biltzen dituen ekimenak garatu ahal izateko, hiru bide erabili ahal izango dira:*

- a) *Lankidetzak hitzarmenak. Bertan, finantzazioa zehaztuko da, bai Foru Aldundiarena diru laguntzen bidez, bai eskualdeen ekarpena (udalak edo garapen agentziak).*
- b) *Laguntzen deialdi publikoak, lehiaketa erregimenean, non bertako irizpideak aplikatuko baitira.*
- c) *Tokiko garapeneko eskualde agentzien kontratazioa kontratazio publikoaren araudi orokorrari jarraikiz, lurraldeko behar puntualak finantzatzeko, denboran mugatuak y urteko ekintza planean jasotzen direnak.*

*Horretarako, programa edo jarduera ildo jakin batzuetan garapen agentzietako langile teknikoek orduak kofinantzatuko dira tarifa finko batekin. Hori zehaztu eta urtero eguneratuko da, eta 2018rako 35 euro/ordu jartzen da gehienez, eta programa bakoitzean definitutako ordu hautaketa irizpide bat. Ezingo da iritsi, inola ere, finantzazioaren % 100era.*

*Gainera, bi kasuetan, eskualdeen beharrak (eta Lurralde Historikoan daukaten pisu sozio-ekonomikoa aintzakotzat hartuz) eta behar horiei erantzuna emateko proposatzen diren ekintzen eraginak kontuan hartuko dira. Finantzazioa bermatuta dago Foru Aldundiak eta tokiko garapeneko eskualde*



agentziek norberaren aurrekontuetan aurreikusten dituzten aurrekontu eskuragarritasunen arabera.

Gobernantza metodologia honen barruan ebaluazio prozedura integral bat txertatuko da. Haren bidez, egiten denaz eta hartutako erabakien eraginez ikasi behar da, hartara gizarteari kontuak emateko eta hobekuntza elementuak sartzeko modu jarraituan.

#### **Zazpigarrena. Jarraipen batzordea.**

1. Jarraipen Batzorde bat sortzea erabakitzen da, hitzarmen honetako helburuak beteko direla bermatzeko, klausulen interpretazioan eta betetzean sor daitekeen edozein zalantza argitzeko.
2. Jarraipen batzordea EAMko batzorde exekutiboan edo eskualde arteko mahaian dauden pertsonen osatuko dute.
3. Batzorde hori elkartuko da alderen batek hala eskatzen duenean, eta urtean 3 aldiz gutxienez.

#### **Zortzigarrena. Beterri-Buruntza eskualdea.**

Beterri-Buruntza eskualdeak ez duenez forma juridikorik garapen agentzia gisa, hitzarmen honetan tokiko garapeneko eskualde agentziak aipatzen diren orotan, ulertuko da barne daudela eskualde horretako udal guztiak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil), ordezkari Andoaingo Udala izango dutelarik. Udal horiek Tokiko Garapeneko Eskualde Agentzia bat eratzen badute, eskatu ahal izango dute hitzarmen honetan Andoaingo Udalak bere lekua Agentzia horri utzi diezaiola. Horretarako, aipatutako udal guztiek sinatutako eskaera aurkeztu beharko diote Foru Aldundiari.

#### **Bederatzigarrena. Indarraldia.**

Hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean, eta 2021eko ekainaren 30ean amaituko da. Lau urtez gehiago luzatu ahal izango da esanbidezko eta alderdi sinatzaile guztien aho bateko akordio baten bidez.

#### **Hamargarrena. Iraungitzea.**

Hitzarmen hau iraungiko da:

- a) Aurreko klausulan aipatutako indarraldia amaitzean.



- b) Alderdi sinatzaileek adostuta.
- c) Hitzarmen honetan biltzen diren konpromisoak ez betetzeagatik.

### **Hamargarrena. Araubide juridikoa.**

*Hitzarmen hau izaera administratibokoa da eta, beraz, hura interpretatu eta garatzeko araubide administratiboa bete beharko da, aldeek administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa espresuki bete beharko dutelarik.”*

## **5.- LEHENDAKARITZA**

### **5.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak**

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

**17/20.-** 1.- Debagoieneko Mankomunitatearen lokalak eta instalazioak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua HEMEN GARBIKETAK, S.L. enpresari esleitzea, ondorengo prezioan:

- Aurrez zehaztutako garbiketa lanak: 2.434,04 €/hileko, gehi 511,15 €, BEZaren %21ari dagokiona.
- Mankomunitateak gerora behar ditzakeen garbiketa lanak: 19,40 €/orduko, gehi BEZaren 4,07 €.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

3.- Enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera, kontratu honen xede diren lanetan arituko diren langileei Gipuzkoako Eraikin eta Lokalen Garbiketako hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaie.

**17/21.-** 17/06 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA HAMALAU MILA ETA BERROGEITA HAMAZORTZI EURO ETA HAMALAU ZENTIMO (114.058,14 €).

**17/22.-** 1.- G. I. A. kontratatzea martxoaren 20tik aurrera bete gabe dagoen gidari-zamaketari lanpostua behin betiko bete arte dagokion prozedura jarraitu ondoren, edota, lanpostu hau kendu arte, hala erabakiko balitz. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

2.- J. O. G. kontratatzea martxoaren 20tik aurrera J. L. gidari-zamaketariaren ordezkapena egiteko gaixotasunagatik. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

3.- M. A. E. kontratatzea martxoaren 20an, arratsaldez, J. L. M. Garbiguneko zainzailearen ordezkapena egiteko, martxoaren 21etik 23ra, eta martxoaren 28an, 30ean eta apirilaren 5ean eta 6an, J. A. Epeleko zabortegiko zainzailearena, eta martxoaren 27an, arratsaldez, D. G. Lanpostu hauei dagokien ordainsaria emango zaio.



4.- J. M. T. L. kontratatzea martxoaren 21ean, 23an, 28an eta 30ean J. E. txoferraren ordezkapena egiteko. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

5.- J. E. I. kontratatzea martxoaren 14an eta 29tik 31ra Bergarako ibilbide industrialak egiteko zamaketari bezala. Lanpostu honi dagokion ordainsaria emango zaio.

**17/23.-** - I. Z. M. izendatzea bitarteko funtzionario, 2017ko martxoaren 27tik aurrera, aipatu turismo teknikariaren ordezkapena egiteko, bere gaixotasunagatikoko bajaldia bukatu arte. Hileko 2.604,10 €ko ordainsari gordina emango zaie, honela banatuta:

- Soldata: 931,11 €. (A2)
- Lanpostu-mailako osagarria: 398,29 €. (18)
- Berriazko osagarria: 1.274,70 €.

**17/24.-** 1.- Mankomunitateak jasotako papera eta kartoia saltzeko kontratua BIDASOA ECO GESTIÓN, S.L. enpresari esleitzea, ondorengo prezioan:

- ✓ Edukiontzia urdinetan eta atez ate jasotako materialak (EN 643:2014 normako 1.01 KALITATEA, "papera eta kartoiaren nahasketa arrunta"): 105 € tonako.
- ✓ Garbiguneetan eta denda eta industrietan jasotako materialak (EN 643:2014 normako 1.04.01 KALITATEA, "paper eta kartoi ondulatu arrunta"): 107 € tonako.

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

**17/25.-** - Debagoieneko Mankomunitatearen lurralde-eremuan 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programak garatzen dituzten onura publikoko erakundeei diru-laguntzak emateko 2017ko deialdia onartzea, ondorengo klausulen arabera:

**DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN LURRALDE-EREMUAN 16 ETA  
18 URTE TARTEKO GAZTEEN LAN ETA GIZARTE TXERTAKETA  
ERRAZTEKO PROGRAMAK GARATZEN DITUZTEN ONURA PUBLIKOKO  
ERAKUNDEEI DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO 2017KO DEIALDIA**

**1. Oinarri arautzaileak**

*Deialdi honen oinarri arautzaileak Mankomunitateko Gobernu Juntak onartu zituen 2017ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, eta 2017ko martxoaren 30eko 63 zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.*

**2. Aurrekontu kredituak eta diru-laguntzen zenbatekoa**

*Deialdi honetan emango diren diru-laguntzen zenbatekoa guztira 19.000 €-koa izango da, eta Mankomunitateko 2017ko Aurrekontu Orokorren 7100.481.241.00.01 partidaren kontura emango dira.*



Orientazio eta txertatze laboral eta sozialeko ekintzetan parte hartzen duten gazte kopurua oinarritzat hartuko da erakunde eskatzaileei eman beharreko laguntzak kalkulatzeko. Gazte bakoitzeko gehieneko diru-laguntza 475 €-koa izango da. Hautatutako erakunde bakoitzak jasoko duen diru laguntzaren kopurua, programan izandako gazte parte hartzaile eta gazte bakoitzeko dagokion diru-laguntza kopurua biderkatzetik ondorioztatuko da.

Diru-laguntzen kopuru guztiak, dagokion aurrekontuaren partidan ezarritako gehieneko kopurua gaindituko balu, Mankomunitateak guztien arteko banaketa proportzionala egingo du.

### **3. Diru-laguntzen xedea**

Diru-laguntza hauen helburua edo xedea da derrigorrezko bigarren hezkuntza titulua ez duten 16 eta 18 urte tarteko gazteei zuzendutako orientazio eta txertatze soziala eta laborala sustatuko duten ekintzak areagotzea.

### **4. Diru-laguntzak emateko erregimena**

Diru-laguntza hauek norgehiagokako erregimenean emango dira.

### **5. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak**

Debagoieneko eremuan bere aktibitatea garatzen duten onura publikoko izendatutako erakunde pribatuak diru laguntza hauen onuradunak izan ahal izango dira. Beti ere, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako debekueetan ez badaude.

### **6. Diruz lagungarri diren jarduerak**

Emango diren laguntzek, oinarritzko prestakuntza eta kualifikazio profesionaleko programetako orientazio eta txertatze laboreko eta sozialeko ekintza osagarrien kostu espezifikoak babestuko dituzte. Gazteei zuzendutako, taldean zein banaka, burutzen diren orientazio eta txertatze laboral eta sozialeko ekintzetan gauzatuko dira. Txertatze ibilbideak diseinatzeko, enpresetan praktikak garatzeko eta praktika horiei lotutako tutoretza pertsonalizatuak babestuko dira, beti ere, erreferentziazko prestakuntza programetako gazte parte hartzaileen lan eta sozial txertaketa errazteko badira.

Ekintza hauek Debagoieneko eskualdean garatu beharko dira eta Mankomunitatea osatzen duten udalerriren batean bizi diren eta derrigorrezko bigarren hezkuntza titulua ez duten, 16 eta 18 urte tarteko gazteei zuzenduko zaizkie.

Ekintza hauek 2016an garatutakoak izan beharko dira.

### **7. Prozedura agintzeko, instrukzioa egiteko eta erabakitze organo eskudunak**

Laguntzen deialdia egitea Debagoieneko Mankomunitatearen lehendakariari dagokio, eta berak hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Diru-laguntzak emateko prozedura garatzea Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Ekonomikorako Eskualde Agentziako Arduradunari dagokio, eta



*berorrek erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, horiek ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki iritzitako behar besteko jarduketak egingo ditu ofizioz.*

*Garapen Agentziako arduradunak, eskatzaileak diru laguntzaren eta aurkeztutako dokumentazioa osoa eta zuzena dela eta onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituela baieztatuko du.*

*Zerbitzuko arduradunak eskaerei buruzko balorazio txostena egingo du.*

*Eskaerak ebaluatuta, prozedura erabakitzeko proposamena Garapen Agentziako Batzorde Informatiboak egingo du eta Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntara eramango du, bera baita erabakia hartzeko organo eskuduna.*

### **8. Diru-laguntzak eskatzeko modua eta epea**

*Diru-laguntza hauek lortzea nahi dituzten erakundeek, Debagoieneko Mankomunitateko egoitzan dagoen eskaera eredu normalizatuari egokitutako eskaera aurkeztu beharko dute.*

*Eskaerak aurkezteko epea, diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetatik kontatuta, 15 egun balioduneko izango da .*

*Ondo betetako eskaera eredu normalizatuarekin batera, eskatzaileek ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituzte:*

1. *Erakunde pribatuaren eraketaren dokumentu edo idazketa.*
2. *Erakundearen ordezkariaren botereak eta nortasun agiria.*
3. *Eskatzailea onura publikoko izendapenaren agiria.*
4. *Identitate fiskalaren txartelaren kopia.*
5. *Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako agiria, ziurtatzeko bere izenean kontu korrante bat duela.*
6. *Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunetikiko ordainketak egunean dituela dioten ziurtagiriak.*
7. *Diru-laguntza eskaera honetako jarduerak finantzatzeko jasotako beste diru-laguntza edo sarreraren zenbatekoa adierazten duen zinpeko aitorpena.*
8. *Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez egotearen zinpeko adierazpena.*
9. *Garatutako txertaketa laborala eta soziala errazteko eta orientazioko ekintza osagarriekin erlazionaturiko dokumentazioa.*
  - *Garatutako ekintzen azalpena*
    - Garatutako programaren azalpena eta helburuak*
    - Banakako zein taldeko ekintzak*
    - Garatutako ekintzen egutegia*
    - Ekintzak burutu dituen pertsonala eta euskararen ezagutza*
    - Erabilitako bitartekari eta ekipamenduak*
    - Inplikaturiko kanpo eragileak*
    - Ekintzen onuradun parte hartzaileak*
    - Garatutako ekintzen ebaluaziorako ekimenak*
    - Garatutako programaren ekintzetan erabilitako hizkuntza*
  - *Gastuen erlazioa eta justifikazioa*
    - Pertsonal gastuak*

Material gastuak  
Kontsumoak  
Beste batzuk

- *Lortutako emaitzak*  
*Txertatze labora eta sozialarekiko banakako ibilbideetan lortutako hobekuntzak*  
*Orientazio zein txertatze labora eta sozialeko ekintzak abian jarri izanaren emaitza espezifikoak.*

## **9. Erabakitzeko eta jakinarazteko epea**

*Oinarri hauetan aurreikusitako diru-laguntzak erabakitzeko organo eskuduna Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Junta izango da.*

*Orokorrean, dagokion erabakiak hartu eta horiek argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da. Epe hori deialdia argitaratzen denetik hasiko da kontatzen.*

*Aipatutako epe muga igarota erabakia jakinarazi ez bazaio edo argitaratu ez bada, legitimatuko du eskatzailea administrazio isiltasunez ezetsi dela ulertzeko.*

*Prozeduraren erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoko Ohiko Prozedura Administratiboaren urriko 1eko 39/2015 Legeko 40. artikuluan ezarritakoaren arabera.*

*Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango dute interesatuek Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.*

*Hala ere, interesatuek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko Mankomunitatearen Gobernu Juntari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo uzteko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.*

## **10. Eskaerak balioesteko irizpideak**

*Eskaeren arteko hautaketa ondorengo balorazio irizpideen arabera egingo da:*

*a.- Garatutako ekintza osagarrien programaren argitasuna, hedaduraren egokitasuna eta jarritako helburu eta garatutako metodologiaren arteko koherentzia. 50 puntu arte.*

*b.- Garatutako ekintzen inpaktua edo eragina prestakuntza programen parte hartzaileen lan eta sozial txertatze arloari dagokionez. 40 puntu arte.*

*c.- Gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasuna. 10 puntu arte.*

*Diru-laguntza hauen onuradun izateko gutxienez 50 puntu lortu beharko dira.*



- 19.000 €-ko gastua baimentzea 2017ko Aurrekontu Orokorraren 7100.481.241.00.01 partidaren kargura, deialdi honi aurre egiteko.

## 6.- GALDE-ERREGUAK

- **Puntaik Punta jaialdia;** Beñardok dio ez daukala inongo zentzurik egun berdinean Antzuolan San Isidro azoka eta Bergaran Puntaik Punta jaialdia egitea. Hasiera batean Puntaik Punta jaialdia maiatzaren 27an jarri zela, baina gero Bergarak aldatu egin zuela.

Elenak dio bien arteko sinergiak topatu daitezkeela, baina Beñardok horretarako berandu dela erantzun dio.

- **Liztorrari buruzko ikastaroa;** apirilaren 27an Mankomunitatean liztorrari buruzko ikastaro bat emango dela jakinarazten da.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 12:00etan, bukatutzat eman da bilkura.